

Ana Mari Mendizabal Zamakona Pilita
Lemoiz, Bizkaia (1936)

Aurkibidea

Biografia

1936. urtean jaio zen Armintzako portuko etxe zahar batean. Aita Armintzako arrantzale bat zen eta ama Ondarroan jaioetako etxeakoandrea. Sei urte zituela, ama Santanderren zuten izeko bat jagotera joan zen eta bertan hil zen. Orduan, aitak Santanderrera bidali zuen Ana Mari, eskolara joan zedin. Hiru anai izan zituen eta alaba bakarra izanda, hamabi urterekin, aitak etxera ekarri zuen bertan lagundu ahal izateko. Bizi guztia lanean eman du eta lan ezberdin ugari egin izan zituen arren, itsasoarekin lotura zuten lanetan ibili izan da gehienetan: goizaldean portura heltzen zen arraina Bilboko "asentadore"ari saldu, handik etorri eta itsasoan apurtutako sareak konpondu, arraina garbitu, aparejoak konpondu... Bere umetako laguna izan zen [Angel Barturen](#) arrantzalearekin ezkondu zen.

Zintak

LMZ-003

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere

- **Data:** 2013-05-17
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Bilbao Telletxea, Arantza

LMZ-004

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2013-05-17
- **Iraupena:** 20 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Hamabi urterekin itzuli zen etxera

- **Erref:** LMZ-003/002
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Sei urte zituela hil zitzaion ama eta hiru neba zaharrago eta bera geratu ziren aitarekin. Santanderrera eraman zuen izeko batek ikas zezan. Hamabi urterekin ekarri zuen aitak etxera laguntza izateko.

2. Denetarik egindakoa da

- **Erref:** LMZ-003/003
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:07:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Denetarik egin du: arraina eraman, aparailuak, neskaila lanak... Amaren familia guztia Ondarroakoa izan zen. Arrantzalea izan zuen aita eta ama etxeaz eta umeez arduratzen zen. Hori zen antzinako legea. nebak ezkondu zirenean, aitarekin geratu zen. Senarra ere arrantzalea izan da, inguruko gizonik finena.

3. Armintzako arraina Bilbora

- **Erref:** LMZ-003/004
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:07:17. **Bukatu:** 00:08:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Armintzako arraina eramaten zuen Bilbora. Goizeko lauretan jaiki, ohea egin eta arrainak gurdi batean kargatu eta Plentziaraino oinez. Han trena hartzen zuen Bilbora. Plazako asentadoreari saltzen zion arraina. Ordu biak inguruan etxera itzuli, gizonentzako bazkaria prestatu, eta behar zenean, portura joaten zen sareak konpontzera.

4. Batez ere lupinetan

- **Erref:** LMZ-003/006
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:11:00. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Itsas fauna
- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

Aitak itsasontzia (motor txikia) zuen; anaiak ere berarekin ibiltzen ziren; etxerako eta saltzeko adina arrain harrapatzen zuten. Barbarinak (salmoneteak), lupiak eta neguan bisiguak harrapatzen zituzten. Orduen ez zekiten bestelakoak arrantzatzen.

5. Itsas belarrak biltzen ziren udazkenean

- **Erref:** LMZ-003/007
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:15:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

Udazkenean, arrainik ez zegoenean, itsas belarrak biltzen zituzten. Lehortu eta Guadalajarako batzuei saltzen zizkieten, kremak, sendagaiak eta abar egiteko. Euskal kostaldeko beste herri batzuetan ere biltzen zituzten. Orain ere kanpotarren bat ibiltzen da horretan.

6. Kofradiako argazkiko emakume bakarra

- **Erref:** LMZ-003/009
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:16:15. **Bukatu:** 00:20:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Armintzako lehenengo neskatila bera izan da, kofradian izena emanda zegoen bakarra. Gizonei arrantzako gauzetan laguntzen diena da neskatila. 28 urte

edo egon zen izena emanda, eta hortik jaso zuen erretiroa. Hamar urtean ibili zen Bermeora: karnatarako sardina izoztuak erostera joaten zen. Autoa bete-beteta itzultzen zen Armintzara. 28 urterekin atera zuen gidatzeko baimena.

7. Adituz ikasi sareak josten

- **Erref:** LMZ-003/010
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:20:17. **Bukatu:** 00:21:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Beti ikusi ditu etxean sareak. Lan lotua da sare konponketa, baina berak ikasi nahi izan zuen, eta begira-begira ikasi ere egin zuen.

8. Orratzak eta firua otzaran

- **Erref:** LMZ-003/011
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:21:17. **Bukatu:** 00:24:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Sareak josten erabiltzen zituen orratzak eta hariak erakusten dizkigu. Haria orratzean lotzen ere erakusten du. Sarearen arabera aldatzen da orratzaren neurria.

9. Sareetako zuloak

- **Erref:** LMZ-003/013
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:25:56. **Bukatu:** 00:28:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Apurtuta heltzen zen sarea itsasotik. Zabaldu egiten zen, eta zuloa zegoen tokian troinua egiten zitzaion. Sarean kateatutako antxoa jatera joaten zen garda izeneko arraina, marrazo antzekoa, eta sareak apurtzen zituen hortz zorrotzak zituen eta. Ana Mari gaztea zenez, trebeagoa zen sareak josten.

10. Ogerleko bat ordubete

- **Erref:** LMZ-003/014
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:28:42. **Bukatu:** 00:30:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Orduko ogerleko bat ordaintzen zioten; bost ogerleko lau ordu. Bermeoko itsasontzi bat, Galerna izenekoa" sartzen zen batzuetan eta hango patroiak bikoitza ordaintzen zion. Nahi zuen arraina ere ematen zion; ondo hartzen zuten bera.

11. Oraingo sareginek erosoago egiten dute lan

- **Erref:** LMZ-003/015
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:31:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Batzuetan, gauerako konpondu behar ziren sareak. Beste batzuetan, egunak ematen zituzten. Orain, Kantabria aldean ikusi du eguzkitakoaren itzalean ondo eserita konpontzen dituztela sareak.

12. Oraingo sareak gogorragoak

- **Erref:** LMZ-003/017
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:32:15. **Bukatu:** 00:33:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Asko galdu da sareginen lana. Oraingo sareak plastikozkoak dira eta gogorragoak dira. Bartzelonatik ekarritako sareak josten gau eta egun aritu ziren.

13. Saregin bakarra

- **Erref:** LMZ-003/018
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:33:42. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Familiako andreak izaten ziren etxeko arrantzaleen laguntzaileak, baina berariaz sareak josten bera bakarrik aritzen zen. Antxoa sasoian, kanpotik etortzen ziren kontserba-fabrikara lanera.

14. Aitagaz eta amagaz ikasitako euskara

- **Erref:** LMZ-003/020
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:35:51. **Bukatu:** 00:37:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskara gipuzkoarra, bizkaitarra, batua bereizten dute. Eurek batua ez dute ulertzen; apur bat bai. Eta euren euskara ez dute ulertzen zenbaitek.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com